

IL AZALPEN PROBA • <i>San Ferminetan, Lesakan</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta iritzia ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

***Jimbo Larrea:** Ez da ideia txarra, horrela Jaungoikoa ere txuri-urdinen alde jarriko duzue! Eta batek daki, igual, txanpinoien liga irabaziko duzue!*

***Ximon:** Gabilondo, idazkaria izango zara?*

***Jon Gabilondo:** Bale. Izango naiz.*

***Ximon:** Mila esker. Konpentsatuko dizugu nolabait. Orain beste kontua aztertu behar dugu. Diruzainarena.*

***Hiru hooliganak:** Gu, gu, gu!*

***Lide:** Tu-ru-ru!*

***Tomasito:** Jakin daiteke zein den zehatz-mehatz diruzainaren lana? Nik dakidala oraingoz ez daukagu euro triste bat!*

***Danel:** Adibidez, kontu korrante bat zabaldu beharko du banketxeren batean.*

***Tomasito:** Ze dirurekin?*

***Danel:** Aste honetan bertan laugarren mailako ikasle guztiei kobratuko diegun lehenengo kuotarekin.*

***Bost euro bakoitzak.** Laurogei ikasle gara, gutxi gorabehera. Laurehun euro jasoko ditugu martxan hasteko.*

***Lide:** Eta irakasleek zer, ez dute ezer ordaindu behar?*

***Danel:** Oraindik ez dakigu zenbat izango diren, eta nortzuk izango diren. Erabakitzen dutenean, horiei ere bosna euro eskatuko dizkiegu.*

***Ibarbia:** Barrabas etortzen bada, hamar euro!*